



Udalerriko oinarrizko zerbitzuetara eta gune berdeetara oinez joan daitekeen biztanleria **2**

Definizioa:

Irisgarritasuna, oinarrizko zerbitzu eta berdeguneetara gehienez 300 metroko distantzia izatea da. Adierazle honek ez du gune publikoen kalitatea neurtzen, hauen gertutasuna baizik eta biztanleriaren irisgarritasuna haietara.

Azpiadierazlea:	Unitatea:
2.A. Biztanleen irisgarritasuna ekipamentu mota desberdinetara.	300m baino gutxiagotara Kultur-Etxea duen biztanleria (%)
	300m baino gutxiagotara Kirol Instalazioa duen biztanleria (%)
	300m baino gutxiagotara Hezkuntza zentrua duen biztanleria (%)
	300m baino gutxiagotara Osasun zentrua duen biztanleria (%)
	300m baino gutxiagotara Berdegunea duen biztanleria (%)

Erlazionaturiko Iraunkortasun-Printzipioak:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
✓	✓	✓	✓	✓	✓				✓

Kalkulurako metodologia:

Adierazle hau kalkulatzeko G.I.S (ARC MAP) erreminta erabili da.

Berdeguneen eta oinarrizko zerbitzuen geografi-distribuzioaren buruzko informazioa erabiltzen da.

Berdeguneen eta oinarrizko zerbitzuen geografi-distribuzioari buruzko informazioa, Bizkaiko biztanleriaren banaketari buruzko informazioarekin bateratu da. Hau izan delako eskuratu ahal izan den desagregazio-maila egokiena.

Berdeguneak, udal-plangintzetan parke publiko eta hiriguneko lorategi bezala azaltzen diren azalera oro lez hartu dira kontutan, beraien azalera kontsideratu gabe.

Metodologia hurrengo orrialdean azaltzen da grafikoki.

Neurketa maiztasuna:

Hiru urtez behin.

Informazio-iturria:

Bizkaiko Foru Aldundia.




Udalerriko oinarrizko zerbitzuetara eta gune berdeetara oinez joan daitekeen biztanleria | 2

Demagun:


- 300 metro erradioko influentzia azalera duen ekipamentu bat, marratuta eta irudikatuta:



- 4.000 biztanleko Udalerri bat



Kartografia biak gainezartzerakoan:



Adierazlearen emaitza honako hau litzateke:

Biztaleriaren %100, 300 metro baino gutxiagoko distantzian.


Izan ere, ezinezkoa litzateke jakitea zenbat biztanle bizi diren

300 metroko erradioa eta zentruzat ekipamentua duen zirkuluaren barruan.


Zenbat eta txikiagoa izan daukagun populazio-unitatea Udalerri barruan, orduan eta zehatzagoa izando da kalkulua. Horrela:

Udalerri berdinak entitate bakoitzerako biztanle ezagunak izanik, emaitzak zehatzagoak izando dira.

Ondorengo kasu grafikoan, urdinez marraztutako guneko biztanleak soilik hartuko dira kontutan, kalkulua hobegotuz.



Ekipamentua iparralderago jarrita ere: kasu honetan, berdez eta urdinaz marraztutako populazioa hartzen da kontutan, inoiz ez granatez eta gris marraztutako guneetan daudenak.



Goian azaldu den metodologia, ECIPeke Zuzendaritza Teknikoak (European Common Indicator Project) balioztatu zuen.